2015-01-23 OSTIRALA
2. ZENBAKIA
ARABAKOALEA.INFO



NOIZ HASIKO ZAIN

Lanerako itzulera atzeratu du Celsa Atlantic-eko zuzendaritzak

"Harrobia badugu, baina ez dugu batere zaintzen"

Txus Brizuela, Araberriko entrenatzaile berria

Araban, bertsoaren lehia prest

Igandean hasiko da Dulantzin txapelketa

ALEA
arabako aldizkaria

D. ALAVES
skaltel
ZORIONAK
ALAVESEKO
KAMISETA ETA BALOIAREN IRABAZLEAK
Asun Urturi Ibañez de Opakua
Esther Alzola Ortiz
Bi elastiko zozketatuko ditugu urtarrilaren 30a arte ALEAra harpidetzen zaretenon artean.
IRABAZI
BASKONIAKO
JOKALARIEK SINATUTAKO KAMISETA
LABORAL kutxa
ALEA
arabako aldizkaria
www.arabakoalea.info
harpidetza@arabakoalea.info

Azaleko argazkia:
Iagoba Domingo

Alea 2. zk.

4 Celsa Atlantic, berriz altxatzeko prest

8 Txus Brizuela: "Kirolean, eredu aldaketa behar dugu"

12 Iritzia: Itziar Rekalde, Edu Zelaieta, Itsasegia

ARABAKO KUADRILLAK

14 Gasteiz: Errekaleorreko beste auzokideak

16 Aiaraldea: ur horniketa hobetzeko eskaera

17 Gorbeialdea: hizkuntza irizpide berriak

18 Lautada: plan berria edadetuentzat

19 Añana: onddoak biltzeko saioak Gaubean

20 Mendialdea: kontsumo eredu berria labean

21 Trebiñu: Argantzun eta Konderria, bi errealitate ezberdin

22 Arabar Errioxa: Araba Euskaraz jaiaren aurkezpena

HAMAIKA SALTSA

23 Bertsoaren lehia, prest

24 Erromanikoaren zentro berria Estibalizen

25 Lan eta bizi, euskaraz

26 Gazteen ahotsak: Gasteizko GazteTopa, ideiaz betea

27 Umeak ume: Argazkiak, marrazkiak eta jolasak!

28 Postontziak: Zorion mezuak eta elurraren argazkiak

29 Denbora-pasak

30 Agenda

ALEA arabako aldizkaria

Argitaratzailea
Arabako Alea Komunikazio Taldea S.L.

Zuzendaria
Aritz Martínez de Luna Urzelai

Erredakzioa
Anakoz Amenabar
Itsaso Estarrona Elizondo
Iagoba Domingo Aranzabal

Denbora-pasak
Begibistan

Inprenta
Bidasoa inprimatzeko zentroa

Banaketa
Bidera zerbitzuak

EGOITZA NAGUSIA
Arabako Alea Komunikazio Taldea S.L.
Eskola kalea, 10, 13. bulegoa,
01001, Vitoria-Gasteiz, Araba
Tel.: 945 71 60 09
625 23 16 03
info@arabakoalea.info

Harpidetzak
harpidetza@arabakoalea.info

Publizitatea
publizitatea@arabakoalea.info

Lege Gordailua: VI-32-2015
ISSN: 2386-8961

Tirada: 3.000 ale

ALEAk ez du bere gain hartzen IRITZIA sailean, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

Bultzatzaileak:

geu ELKARTEA

goiena KOMUNIKAZIO TALDEA

berria

Laguntzailea:

www.aiaraldea.eus

Juana Mari Ortega eta David Garcia Laminacioneseko langileak, LAB-ek Gasteizen duen egoitzan. | SAIOA FERNANDEZ DE ARANGUIZ

Berriz altxatzeko asmoz

Joan den asteartean itzuli behar zuten lanera Celsa Atlanticeko langile kaleratuek, joan den urtean epaitegiek erregulazio espedientea baliogabetu eta gero, baina zuzendaritzak bueltatzeko eguna atzeratu du apirila arte, hurrengo hilabeteetan formazio ikastaroak egiteko. Bi urte baino gehiagoko lan gatazkak lurraldean "arrasto sakona" utzi duela azaldu dute kaleratutako langileek, eta min handia eragin duen arren, beste borroka batzuetarako "eredugarri eta baliagarri" ere izan daitekeela uste dute ALEA-rekin izandako solasaldian. **ANAKOZ AMENABAR** *@anamenabar* GASTEIZ

Desenginda. Bi urte baino gehiagoko lan gatazkak "kolpatuta" utzi ditu. Laminaciones Arregui ohiko langile kaleratuek bizi izandakoa "borroka latza" izan dela gogoratu dute David Garcia, Juana Mari Ortega eta Enrique Martin beharginek, eta berriz altxatzeko lanak izango dituztela. "Orbain sakona utzi du zauri honek, alor guztietan, eta ez da erraza izango, berriz ere, dena eraikitzea. Guztion arteko indarrak baino ez du osatuko hau", aipatu du Ortegak, Arreguin lehenago eta egungo Celsa Atlanticen 40 urte baino gehiago bete dituen langileak.

Berreraikitze prozesua, baina, motela izango dela uste dute. Laster beteko dira hiru urte gatazka hasi zenetik, eta pauso garrantzitsuak izan badira ere, ez dirudi berehalakoan konponduko denik. Hilaren 9an itzuli behar zuten lanera epaitegiek baliogabetu zuten erregulazio dosierreko 90 langile kaleratuek, baina zuzendaritzak hilaren 21era atzeratu zuen buelta, urteko jaiegun osagarriak hartzera behartu eta gero. Hilaren 21ean ere, joan den asteazkenean, ezin izan zuten lantegira bueltatu; berriz ere buelta atzeratu du zuzendaritzak, eta hiru hilabeteko formazio ikastaroa egitera bidali ditu beharginak, lantegitik kanpo. "Eta are lotsagarriagoa dena, UGT sindikatuak zuzentzen duen enpresa batean, jakinik, gainera, zer nolako tira-birak izan diren sindikatu horretako langileekin azkenaldian", azaldu du Garciak. "Gu ez gaude formazioaren kontra, are gehiago, beharrezkoa dela uste dugu gure lanerako, eta hori izan da beti eskatu dugun gauzetako bat, baina formazio horrek enpresa barruan izan behar du eta bertako materialarekin".

Hiru hilabeteko formazio ikastaroak langileak "nekatzea" beste helbururik ez duela uste du Martinek ere. "Nekatu nahi gaituzte baina ez dute lortuko; badago lantegian ikastaro hori egin ez duenik eta guk derrigor egin behar dugu". Ildo beretik, formazio saioak beharrezkoak direla uste du Ortegak, baina "zalantza" pizten diote zuzendaritzak prestatutakoek. "Beharra dugu ekoizpen mailan eta baita maila psiko-

"Etekin ekonomikoa izan denean aprobetxatu dute; orain bizi dugun gatazkari erantzun behar diote"

JUANA MARI ORTEGA CELSA ATLANTIC

"Zeinek ikertzen ditu langileei bete betean eragiten dieten ustelkeria kasuak?"

DAVID GARCIA CELSA ATLANTIC

"Nire erantzukizuna da borrokan jarraitzea. Ez daukat besterik, nora noa ni 52 urterekin?"

ENRIQUE MARTIN CELSA ATLANTIC-

gikoan ere birziklatze sakona egiteko, baina zalantza eragiten digute enpresaren mugimendu hauek, inolako adostasunik gabe hartutakoak".

Enpresa jaio, hazi, garatu eta gatazkan sartzen ikusi duela gogoratu du Ortegak, eta Celsa Atlantic orain langileekin "zorretan" dagoela uste du: "Etekin ekonomikoa izan denean enpresak jakin du unea aprobetxatzen, eta orain uste dut erantzun behar diola bizi dugun gatazkari". Enpresa ikuspuntutik jakin badaki Ortegak, ordea, hitz horiek ez dutela lekurik: "Denok dakigu zeintzuk diren enpresen asmoak egun, merkatuak dira jaun eta jabe". Enpresa gatazka konpontzeko prest ez dagoela uste du Ortegak, eta horrek "ziurgabetasuna" sortzen duela: "Langileok ez dugu ezer ordezkatzen, zenbaki bat gara eurentzat".

'Normalizatuta'

Azken bi urte eta erdiko borrokaren ostean, gatazka egoera "normaltzat" hartu izana "akats handia" dela uste du Garciak. "Badirudi hasieran izan genuen jenio txar guztia, haserrea, nolabait bideratu dugula, eta orain zuzendaritzak esaten duen edozer gauza normaltzat hartzen dugu". Auzitegi Gorenaren ebazpenak behar-ginak "lehenbailehen" lanean hastera behartzen zituela gogoratu du, eta oraindik bete ez dutela. "Gorenak agindutakoa betetzen ez badute lehenengo fasean, zer berme izango ditugu hurrengoetan?".

Bidea, maldan gora

Borroka honen arrakastaren giltza nagusietako bat langile kaleratuen arteko "batasuna" izan dela nabarmendu du Garciak. Horrek ahalbidetu du, haren esanetan, gatazka sozializatzea eta tarteka aldarrikapen modu ezberdinak sortzea. "Presio sozialak ekarri du gatazka bizirik mantentzea, eta argi dago halako presiorik gabe auzitegien sententziak ere ez zirela berdinak izango".

Auzitegietako azken ebazpena bitartean, baina, bidea "maldan gora" izan dela gogoratu du, eta tartean erakundeen babesa faltan izan dutela. Besteak beste, Iñigo Urkullu Eusko Jaurlaritzako lehendakariari, haien alde lerratzeko eskatu diote langileek, eta enpresa mahai batean eseriarazteko eskatu. "Urkulluk hiru urte daramatza gobernuan eta enpresak itxi baino ez ditu egin; lanpostuak sortzeaz ari gara eta ez dira gai dagoena mantentzeko". Condesa, Cegasa eta beste hainbat lantegik bizi dutena "onartezina" dela uste du eta neurriak hartu behar direla. "Ustelkeria kasuak ikertzen ari direla ematen du, baina zeinek ikertzen ditu langileei betean eragiten dietenak? Zeinek zigortzen ditu?". Enpresek nahi dituzten erabakiak har ditzaketela uste du eta hala egin dutela Celsa Atlantic-en. "Erregulazio dosierra aurkezten dute, baliogabe izendatzen dute, ez diote kasurik egiten...noiz arte?". Konponbidea bilatu eta langileen eskubideak errespetatzen diren arte, zuzendaritza "aldatzea" edota "enbargatzea" aukera izan daitekela uste du.

Eraikitzera

Lan gatazkak iraun duen bitartean behin baino gehiagotan izan dute gogoa Ortegak, Martinek eta Garciak dena bertan batera utzi eta beste zerbaitetan hasteko, baina atzera egin dute azken unean. "Etxeko kideen babesa dudan bitartean, nire erantzukizuna da borrokan jarraitzea. Ez daukat besterik, nora noa ni 52 urterekin?", aipatu du Martinek.

Aurrerantzean, langileek desegindakoa eraikitzea beste aukerarik ez dutela gogoratu du Ortegak. Besteak beste, euren borrokarekin bat egin ez duten lankideekin elkartuko dira berriz ere lanean hastearekin batera. "Gure borroka latza izan da eta hurrengo pausoa errekuperatzea izango da, pertsona eta langile moduan baita ere". Egindako ibilbide guztiak fruituak eman dituela uste du eta etorkizunean ere arrastoa utziko duela: "Ekonomiak bizi duen egoerarekin eta justizia nola ari den ikusita, 90 lanpostu berreskuratzea, egun batez bada ere, herritarren arrakasta itzela da niretzat, eta eredu ere izan daitekeena".

Enrique Martin Celsa Atlantic-eko langilea, LAB-en egoitzan. | SAIOA FERNANDEZ DE ARANGUIZ

Hamaika protesta ekintza egin dituzte Celsa Atlantic-eko kideek Gasteizen. | ALEA

Auzitegietan, soka luzea

2012ko martxoa: 352 langile kaleratzeko erregulazio txostena aurkeztu zuen Celsa Atlantic-ek.

2012ko urria: EAEko Justizia Auzitegi Gorenak baliogabetu zuen dosirra.

2013ko martxoa: 160 langileren kontratuak bi urtez eteteko erregulazio espedientea aurkeztu zuen martxoaren 27an Celsa Atlanticek .

2013ko apirila: 160 langileri bi urtez kontratua etetea baliogabetu zuen Espainiako Auzitegi Nazionalak.

2013ko abendua: 91 behargin kaleratzeko agindua eman zuen enpresak,

2014ko uztaila: 2012. urtean EAEko Justizia Auzitegiak ebatzitakoa berretsi zuen Auzitegi Gorenak. 358 langileren kaleratzeak aurreikusten zituen lana erregulatzeko txostena baliogabe utzi zuen.

Celsa Atlantic-eko langileen aldarrikapenak Bartzelonara arte iritsi ziren 2012. urteko maiatzean. | ALEA

Familiek ere lan gatazkaren ondorioak pairatzen dituztela salatzeko horma-irudia egin zuten. | ALEA

ANALISIA

UNAI VILLALBA
EHU-KO EKONOMIA IRAKASLEA

Lan gatazketatik abiatuta...

Hemerotekan bilaketa sinple batek erraz erakusten digu azken urteotan lan-gatazkak Euskal Herrian areagotu direla. Araban kasu esanguratsuak gertatu dira eskualde desberdinetan. Interneteko bilatzailerik gabe ere jakin bagenekien, guztiok pairatu dugu nolabait, senide, lagun edo ezagun baten egoera: soldaten atzeratzea eta lanordu aldaketak hasteko, eta gero neurri okerragoak.

Lan-gatazkak sektore askotan izan dira: zerbitzu publikoetan (udal edo osasun langileak), zerbitzu publiko azpikontratatuetan (autobusak edo zaintza-zentroak), eskoletan, eta noski enpresa txiki zein haundietan. Izaera askotarikoak: egunak edo hilabeteak iraun dutenak, negoziazioaz konpondutakoak edo judizializatutakoak, "krisi" egoerak bultzatutakoak edo lan-erreforma baliatuta enpresariek piztutakoak, etabar luze bat.

Tokian toki eta kasuz kasu aztertu beharko lirateke konponbideak, lan-baldintzen eboluzioa, ekoizpen lerroen bideragarritasuna, finantziazio aukerak eta beste faktore mordo bat. Baina ikuspegi orokorrago batetik beste ideia batzuk azpimarratu daitezke lan-gatazkei dagokionez:

(1) Agerikoa da, baina hein batean lan-gatazken oinarrian enpresaren jabegoa eta lan-indarraren arteko interes kontrajarriak daude. Beraz, interes horiek bat egiteko neurriak hartu zitezkeen: langilegoaren jabegoa sustatu ekonomia sozialaren ildotik, edo langileen partehartze eta kontrol publiko mekanismo berriak ezarri.

(2) Enpresa bakoitzaren gatazkaren kasuan, edo mekanismo eta eredu berriak sustatzerako orduan, bizi berri ditugun kasuetan argi dago langilegoaren antolakuntza kolektiboa erabat beharrezkoa dela.

(3) Enpresa bakoitzari begiratzeaz haratago, ekonomiaren finantziarizazioa dela eta, lana eta kapitalaren arteko gatazka dago. Adibidez T. Piketty ekonomilariak argi esaten du krisi garaian desberdintasunak areagotu direla, eta aberastasun banaketa kapitalaren jabeen aldekoa izan dela nabarmen langabezia areagotzen den bitartean.

(4) Ez dezagun ahaztu, lan-gatazkarik haundinetakoa gaur gaurkoz hori dela, lanik ez izatea, epe luzeko langabezia edo lehenengo lanik ezin topatu dabiltzan gazteen egoera kasu. Enpleguaren sorrera bai noski, baina lanaren banaketa eta berrantolaketa bultzatu beharrean gaude ere.

(5) Bestetik, zeri deitzen diogu lana? Enpleguaz gaindi, bizitza mantendu ahal izateko lanak daude, zaintza lanak. Adibidez A.P. Orozco ekonomilariak azaltzen digu kapital-lana gatazkaren parte bat baino ez dela, kapital metaketa eta bizitzaren artekoa dela sakoneko arazoa.

Bolada txarrari aurre egin eta markagailuari buelta emateko, Saenz Horeca Araberri saskibaloi taldeak Txus Brizuela arabarra fitxatu berri du (Gasteiz, 1963). Epe laburrera, kategoriaz ez jeistea da bere helburu nagusia. Bere bizitzako erronka, ordea, beste bat da: kirola gizartea eraldatzeko tresna gisa baliatu dadin lan egitea.

Arabar askok ez dute Araberri kluba ezagutuko. Nola definituko zenuke hitz gutxitan?

Ni heldu berri bat naiz, baina aspaldi ezagutzen dut kluba. Beste kirol klub asko bezala, pertsona jakin batzuen ilusioari esker sortutakoa da. Oscar Vazquez saskibaloi zale porrokatua da, eta egitura txikia sortu zuen, pixkanaka haziz joan dena. Harrobi taldeak ditu klubak, Arabako hezkuntza zentro batzuekin lotutakoak, eta baita lehen talde bat ere, Saenz Horeca Araberri. Lehen talde hau aurrerapausoak egiten joan da, eta azken urteetan zilarrezko LEB ligan ari da, EBA ligan ibilbide bikaina egin eta gero. Maitasunez egindako lan handiaren ondorioz, eta zorteak lagunduta, Araberrik lortu du nazio mailako hirugarren mailan saskibaloi talde bat izatea.

"Goian egotea zen hasierako helburua, baina orain asmoa mailaz ez jeistea da"

"Harrobia badago, baina gutxi zaintzen dugu; baliabide gehiago behar dira"

Denboraldia amaitu arte, taldearen lidergoa hartu duzu. Zer helburu dituzu?

Taldeak hasieran helburu ezberdina zuen, baina porrot bolada luzea izan du, eta nigana jo dute, zerbait aldatu behar dela uste dutelako. Egia esan, ni saskibaloi zale amorratua naiz, eta erronka polita dela iruditzen zait. Egoerari buelta ematen saiatuko naiz: goian egotea zen taldeak denboraldiaren hasieran zuen helburua, baina orain niri dagokidana jeitsiera saihestea da, gaur egun LEB ligan garaipen eta porroten arteko balantzerik txarrena dugun taldea garelako.

Zehazki, 13 porrot ditu taldeak, eta bakarrik bi garaipen. Markagailu horri buelta ematea zaila izango da?

Saiatuko gara. Hori da orain egin behar duguna: egoerari buelta emateko borroka egin.

Denboraldi honetaz harago, non ikusten duzu taldea epe luzeagoan?

Bere tamainako kategorian dago. Araban badugu mailarik gorenean lehiatzen ari den talde bat, Baskonia, eta ez dut uste Saenz Horecaren helburua maila horietara iristea izan behar denik. Zilarrezko LEB liga oso duina da eta, kanpotar batzuk tartean, hemengo jokalariak oinarri dituen talde bat izateko aukera polita ematen digu.

Harrobi ona daukagu Araban? Entrenatzaile izan zara hainbat eskolatan, eta kantxa ondo ezagutzen duzu...

Harrobia badago. Edonola ere, saskibaloian hasten den mutil edo neska baten formazioan, gure helburua ez da izan behar izar handiak lortzea. Kirol ohituretan hezi behar ditugu, eta kirol zehatz horren inguruko ezagutzak irakatsi. Lan hori ondo egiten baldin bugu, egunen batean fruituak emango dizkigu agian, eta mailarik gorenetan lehiatzeko kirolariak lortuko ditugu.

Harrobia zaintzen dugu?

Gutxi. Egia esan, oso gutxi. Asko ahalegintzen den jende asko dago, baina baliabide gutxi ditugu. Azken sei urteetan Olabide ikastolan egon izan naiz lanean, eta badakit zer zaila den eskola bateko oinarri talde batekin lan egitea.

Eskoletan mutilak eta neskak aritzen dira saskibaloian, baina gero, goiko maletan, gizonezkoak ikusten ditugu batez ere. Batez ere gizonezkoen kirola izaten jarraitzen al du saskibaloiak?

Ez. Ez daukat datua, baina iruditzen zait oinarri talde femenino gehiago daudela, maskulinoak baino.

Zer gertatzen da orduan, kategorietan gora igo ahala gero eta neska gutxiago egoteko?

Agian ez dira hain ezagunak, baina badira: Gasteizen, adibidez, Araski taldea daukagu, eta ibilbide bikaina egiten ari da. Hain zuzen, Araberri baino maila altuago batean dago, estatuko bigarren mailan. Kirolarekin lotutako arazoa baino, gizarte arazo bat daukagu: nolabait, badirudi emakumeak lehenago utzi behar diola kirola egiteari, beste zeregin batzuk dituelako. Nik ez dut horretan sinisten, ezta inolaz ere, eta zorionez, gizartean uste hori aldatzen ari da. Kirola bizitza osoan zehar lagundu gaitzakeen zerbait da, emakume ala gizonezko

TXUS BRIZUELA

ARABERRIKO ENTRENATZAILEA Elite taldeez harago, oinarri kirolarentzat babes gehiago eskatzen du Araberri saskibaloi taldeko entrenatzaile berriak, "kirolaren bidez, gizartea hobetzeko". **ITSASO ESTARRONA** *@itsasoestarrona* GASTEIZ

"Kirolean, eredu aldaketa behar dugu"

SAIOA FERNÁNDEZ DE ARÁNGUIZ

izan, eta nire familian hala da. Ni kirolaria naiz, eta nire emazteak ere astean hiruzpalau aldiz kirola egiten du. Nire alabak ere kirolariak dira.

Beti esan izan da Gasteiz 'saskibaloi hiri' bat dela. Baskonia ez diren beste talde xumeago batzuek ere badute afizioaren babes hori?

Nire ustez, afizioa zer den gaizki ulertzen dugu. Batetik, badaude kirol espektakulu batera dihoazen pertsonak. Horien artean, batzuk badira kirol horren zale amorratuak, baina beste batzuk, aldiz, momentu zoragarri bat bizitzeko joaten dira espektakulu horretara, kirol horrekiko afizio handiegia ez izan arren, eta hori ere ondo dago, baina gauza ezberdinak dira. Beitu zer gertatu den futbolarekin Araban: badaude egoera edozein dela ere Alaves jarraitzen duten zaleak, eta badaude, bestalde, momentu zehatz batean taldeak duen arrakastak erakarrita estadiora doazenak.

Talde handiek badute instituzioen babesa. Klub apalagoek ere?

Ez. Argi eta garbi. Eta eskola kirolak, are gutxiago.

Orduan, babes handiagoa eskatuko zenieke instituzioei?

Noski. Horren alde borrokatu izan naiz beti. Kirolak transmititzen dituen baloreetan hezi behar ditugu gure umeak eta gazteak eskoletan. Bestela, gaizki goaz. Gizarte bezala gure betebeharra da. Horregatik, instituzio publikoek askoz ere gehiago zaindu behar dute eskola kirola.

Baskonia Kopatik kanpo geratu da 17 urte eta gero. Zer sentitzen duzu saskibaloi zale bezala?

Ziklo aldaketa baten aurrean gaude. Baskoniak asmo handiak izan ditu denbora luzean zehar, eta oraindik baditu, baina krisiak ere eragin dio, eta oinarri onak dituen arren, jokalariak askotan aldatu behar izan ditu, seguraski aurrekontuak koadratzeko, eta hainbeste aldaketek eragina izan dute, eragin txarra kasu honetan.

"Gasteizko Araskis nesken taldea ibilbide bikaina egiten ari da"

"Baskonia arabar batek entrenatzea taldea gertuago sentiarazten du"

Aspaldiko partez, entrenatzaile arabarra du Baskoniak, Ibon Navarro. Zer iruditzen zaizu?

Positiboa. Entrenatzailea bertakoa izateak, taldea gertuago sentiarazten die zaleei. Askotan esan ohi dut kirol profesionalak ez duela zerikusi handirik bestelako kirolarekin. Kirol profesionala aureola batekin inguratu ohi dugu, mitologiaz betetzen dugu, eta gizatiartu beharko genukeela iruditzen zait, lurrera ekarri. Zaila da, baina entrenatzailea bertakoa izateak laguntzen du kalearekin konektatzen.

Zerikusia izan zenuen Athletic-eko teknifikazio eskola Olabidera ekartzen. Zer onura ekarriko dizkio horrek Arabari?

Hori ez da guztiz horrela. Athletic-eko teknifikazio eskola urte asko daramatza Araban funtzionatzen. Gero, Olabide eta Athletic akordio batera iritsi ziren, behar beretsuak zituztelako. Nik ez dut Athletic klubarekin zerikusirik, baina Olabiden nengoenean, akordio horren ingurukoak jorratu nituen, noski. Akordio horrekin, gauza asko lortu ditu ikastolak: kirolariak formatzeko metodologia, entrenatzaileentzat formakuntza eta baita futbol

Fitxa

Jaioterria: Gasteiz, 1963.

Familia: Ezkonduta. Bi alaba ditu, 14 eta 17 urtekoak. Biak, saskibaloi jokalariak. "Eta onak, gainera".

Kurrikuluma: Baskoniako jokalaria (85-87), Baskoniako entrenatzaile laguntzailea (87-90), Arrasate Saskibaloi klubeko entrenatzailea (90-95), Marianistas ikastetxeko saskibaloi koordinatzailea (95-2000), haur kategoriako mutilen hautatzailea (2000-2002), Arrasateko formakuntza entrenatzailea (2005-2007), Olabideko entrenatzailea (2007-2012), Araski Juniorreko entrenatzailea (2013-2014).

Beste kirol batzuk: Padela eta txirrindularitza.

Txus Brizuela, Araberri saskibaloi klubeko jertsearekin. | S. FERNÁNDEZ DE ARÁNGUIZ

zelai berri bat egitea ahalbidetu digun akordio ekonomikoa. Instalazio berri hori arabar guztion onerako izango da.

Athleticen teknifikazio eskola horrek kalte egin ahal dio Alaveseko harrobiari?

Hauxe da garrantzia duena: kirolariak egotea. Gero eta kirolari gehiago, hobeto. Eta gero eta baldintza duinagoekin, hobeto ere. Hori metodologia on batekin egiten badugu, eta entrenatzaileei formakuntza ona eskainiz, ona izango da lurralde osorako. Gero, hortik abiatuta, elite jokalariak lortzea, zaila da, baina gertatzen baldin bada, jokalaria bera izan beharko da kluba aukeratu eta bere etorkizuna erabaki behar izango duena. Argi utzi behar dut, dena den, Olabide eta Athletic-aren arteko akordio horrek ez dituela ezertan baldintzatzen kirolarien federazio eskubideak. Olabiden oso argi dugu: jokalarien eskubideak bere familienak dira, ez beste inorenak.

Zer eskatuko zenieke instituzioei?

Instituzioei, oro har, eredu aldaketa bat eskatzen diet. Oinarri kirola askoz gehiago babestu dezaten. Batere dudarik gabe, askoz ere baliabide gehiago bideratu behar dituzte formazio kirolera.

Eta arabar gizarteari zer mezu helaraziko zenioke?

Kirolarekin lotuta?

Adibidez...

Gauza bera: kirol arrakasta baino, askoz ere gehiago baloratu dezaten kirolaren bidez pertsona hezteko prozesua. Gure bizitza osoan zehar inportanteak izango diren baloreak bereganatzen ditugu kirolarekin: ahalegina, sakrifizioa, adiskidetasuna, konpromisoa, talde lana, aurkariarekiko errespetua, ilusioa... Hori guztia da inportanteena. Horrek hobetzen du benetan gure gizartea. Baliabide gehiago izango bagenitu, eta gure teknikariak hobeto formatuta egongo balira, umeekin lan askoz hobea egin ahalko genuke, eta modu horretan gizartea hobetu.

"Hauxe da garrantzitsuena: ahalik eta kirolari gehien egotea, ahalik eta baldintza duienenekin"

"Gure bizitza osorako garrantzitsuak izango diren baloreak ikasi ditzakegu kirolaren bitartez"

"Landazuri kiroldegian hasi nintzen lehiatzen"

Araban egin du Txus Brizuelak bere kirol ibilbidearen zatirik handiena. Baskonian jokalari eta entrenatzaile izan delako ezagutzen dute saskibaloi zale askok, baina eskola kirolan ere izen ezaguna da, tartean Marianistas ikastetxean eta Olabide ikastolan egindako lanagatik.

Hitz egin dezagun apur bat zure bizitzaz... Noiz jaio zinen?

1963ko urtarrilaren 2an.

Non?

Gasteizen.

Nolakoa zen saskibaloia orduan?

Nik *Frontón vitoriano* zelakoa ezagutu nuen. San Prudencio kalean zegoen, justu orain nire ama bizi den tokian, patuaren paradoxak! Saskibaloiarekin nire lehenengo kontaktua San Prudencio ikastetxean izan zen. Ikusi nituen lehenengo partiduak Mendizorrotzako polikiroldegian izan ziren, estreinatu berria. Gogoratzen dut Baskoniak izan zuen lehen atzerritarra, Phil Tollestrup, kanadiar bat. Ondoren etorri zen Ray Price... Nire anaia eta biok beti joaten ginen partiduak ikustera.

Eta noiz hasi zinen jokatzen?

Eskolan, hezkuntza fisikoko gure irakaslea Cecilio Ugarte izan zen, oso ezaguna Gasteizen. Altuak ginen kuadrilla bati esan zigun saskibaloian jokatu behar genuela, eta hala egin genuen.

Zeintzuk ziren orduan zure erreferenteak?

Garai hartan, bertako talde bat genuen, bertako jokalariek osatuta, gaur egun Araberri izan daitekeenaren antzekoa. Amerikar bakarra zegoen, taldeek garai hartan atzerritar bakarra izan zezaketeelako. Horregatik, Baskoniak izan zuen lehenengo amerikarrak gure arreta erakartzen zuen...

Ba al duzu saskibaloian jokatzeko toki kuttunen bat?

Nire ume garaian bazeuden zelai mitiko batzuk. Gasteizen, Landazuriko kiroldegia. Bertan hasi nintzen konpetitzen, eta *kariñoa* diot. Mendizorrozari ere estimua diot. Bizkaian, Durangoko merkatu plaza aukeratuko nuke. Igandetan joaten ginenean, merkatua kentzen zutenean saskibaloi partidua egiten genuen bertan, eta herri guztia egoten zen han. Giro aparta zegoen. Horrez gain, Donostiako Loiola ikastetxeko oroitzapen politak ditut ere. *Poxpolo kutxa* deitzen genion, baina gustura jokatzen nuen han.

> **"Atzerritar bakarra izan zezaketen taldeek lehen; horregatik, arreta deitzen zigun lehen amerikarrak..."**

Kirolarekin lotutako oroitzapen on bat?

Asko! Gasteiz taldean jokatu nueneko 83-84 denboraldia, adibidez, berezia izan zen. Bertako jokalariez osatutako talde bat ginen, baliabiderik gabekoa. Joan-etorriak egunean bertan egiten genituen estatuan zehar. Granadara, adibidez! Eta orain azkarragoa da dena, baina garai hartan 16 ordu ematen genituen Granadara joaten. Beste oroitzapen polit bat: Baskoniarekin debuta egin nuenean. Arrasaten pasa nuen garaiko oroitzapen ederrak ditut ere. Bost urte zoragarri. Pixkanaka-pixkanaka, taldea indartu genuen, estatuko bigarren mailara igo arte. Beste oroitzapen polit asko ditut: Marianistasen entrenatzaile izan nintzenekoa, Olabiden aritu izan naizen garaia...

Eta oroitzapen txar bat?

Lesioa. Donostiara joan nintzen jokatzera eta belauna apurtu nuen. Momentu oso zaila izan zen. Etxetik irteten nintzen lehenengo aldia zen. Ilusio handia nuen, eta zelaian egin nuen lehenengo entrenamenduan belauna apurtu nuen. Bertan amaitu zen guztia. Asko gustatzen zait entrenatzea, asko gustatzen zait partiduak ikustea, baina kirolaren gauzarik politena praktikatzea da, eta hori bukatu zen.

Kirolen bat praktikatzen duzu orain?

Padela. Berandu iritsi naiz kirol horretara eta, beraz, halamoduz jokatzen dut... baina oso ondo pasatzen dut eta, gainera, lagun pilo bat egin ditut. Bizikleta ere asko gustatzen zait. Gehiago ibili beharko nintzateke...

Bakh kiroldegian egindako elkarrizketaren momentu bat. | S. FDZ. DE A.

EDU ZELAIETA
IDAZLEA

Ondo dabil lehengoa

Gero eta mezu gutxiago jasotzen ditut sakelako telefonoan, lagunok. Urte-zaharrean, esate esanguratsu batera-ko, mezu bakar bat ere ez nuen hartu. Sakelakoek gure bizitza inbaditu zutenetik, estreinakoz sartu naiz urte berrian pantailatxoa begiratzeke. Ez naiz absentzia horren gaineko kalkulu zehatzak egiten ibili, baina gero eta egun gehiago joaten dira mezutik mezura. Asteak. Eskerrak honek guztiak berrogeiak beteak ditudala harrapatzen nauen, eta ez, adibide sadiko bat ematearren, hamalau udaberri guriren jabe.

"Sakelakorik gabeko garaira itzultzen ari naizen sentsazioa dut"

Sakelakorik gabeko garaira itzultzen ari naizelako sentsazioa dut azkenaldion. XX. mendera. Deirik ere apenas jasotzen dudan. Estimulu elektronikoen zaparradak bizi gaituen sasoi honetan isilik dirau nire telefonoak. Hilik bezala. Ondorioz, gero eta gutxiago arduratzen naiz hura begiratzeaz. Kontrara, baina, gero eta maizago justifikatu behar izaten dut zer dela eta ez dudan *whatsapp*.

Egia esan, ez nuen asmorik erresistentzia politikorik egiteko; komentario horiexek ekarri didate nonbaiteko aktibismoaren kontzientzia. Esan dezadan, baita ere, ez nagoela sare sozialen kontra; egotekotan, horiek baldar erabiltzeko praktiken kontra nago ni. Izan ere, *whatsapp* ez izateko arrazoia askoz ere sinpleagoa da: lehengo telefonoa ondo dabil, eta bertan internetik ez.

ITZIAR REKALDE
IPUIN KONTALARIA

Ipuinen zergatia

Iluntzero, aitonak logelako mesanotxean gordetako bi zapata kutxa ekartzen zituen sukaldera eta mahai gainean jarri ondoren betiko txokoan eseri egiten zen. Eguneroko erituala hastear zegoen: lehen kutxatik, bere lagun edo senide hildakoen oroigarriak ateratzen zituen eta banan bana begiratzen zituen, otoitzean, berriketan edo bere sentipen barne-barnekoak aitortzen arituko balitz bezala. Ostean estanpa guztiak gorde egiten zituen hurrengo arratsalde arte. Une hartan erne jartzen ginen bilobak bagenekielako bigarren kutxa irekitzeaz batera, gure txanda iritsita zela. Aitonak zeremonia handiz kentzen zion estalkia eta gu bere inguruan eseritzen ginen barruan zegoen altxorrari begira: Tabakoa eta erretzeko papera gordetzen zuen bertan. Aitona abila zen oso zigarroak biltzen ipuinak kontatzen zituen bitartean edo, nahiago baduzue, oso abila zen ipuinak kontatzen zigarroak biltzen zituen bitartean. Kontua da gehienetan bi oinarrizko ekimen hauek uztartzen zituela maitasunez eta maisutasunez. Ordurako erreta zuen medikuak baimendutako zigarro kopurua eta hurrengo egunekoak prestatzen aritzen zen, itsaso handian sirenez eta baleen artean, gurekin batera ospatzen zuen zeremonia irudimentsu hartan.

"Aitona abila zen oso zigarroak biltzen ipuinak kontatu bitartean"

Aitonarekin bizi izan nuen esperientzia haiengatik aukeratuko nuen kontalaritza ofizio modura? Ez daukat batere garbi baina urte hasieran erretzeari utzi diot eta kezkatuta nabil.

KUPELAREN PREZIOA ITSASEGIAREN ZINTA



SAREAN

#ongietorriALEA

Euskal *trending topic* izan da azken astean ALEA aldizkariaren abiatzea. Orain, mailari eutsi beharko! **I.E.** *@itsasoestarrona* GASTEIZ

Manex Agirre @Manexagirre
Barikua. Pozik egoteko arrazoi bat gehiago #ongietorriALEA #aleajactaest

Txerra Rodríguez @garaigoikoa
Berri onak hedabideen arloan: Araban @ArabakoALEA eta Debagoienan #puntua #aleajactaest (Bizkaian ere nahi ditugu!)

Naroa Cuesta @naroacuesta
Arabako euskaldun zahar, berri, trakets eta txukunak saretzeko tresna eskuartean!! #ALEAjactaest #OngiEtorriALEA Zorionak!!

Jon Rejado @rejaudas
Ongi etorri @ArabakoALEA!! Grapadun aldizkaria behingoz (serioak bezala, ;-p)... Zorionak lantalde osoari!

Rober Gutiérrez @robergutierrez
Arabako Alearen 1. zenbakia kalean. Itxi begiak eta jarraitu ametsetan... euskaraz #ongietorriALEA @ArabakoALEA

Ruben Sánchez @arlotea
ALEA astekari berria gaur kalean, Oihaneder etxea ere martxan, pintxopotea... bakarrik kontxako hondartza falta zaigu dedio!

GUTUNAK

Erreka lur azpitik irten da

JOSEAN BUENO GASTEIZ

2015ean badugu Gasteiz Hiribidean "erreka berria", Lautadako Guadiana balitz azaleratu eta berriro lurperatu egiten dena. Udaletik "erreken berreskurapen" gisa saldu zuten lan hau, Gasteiz Hiribidearen birmoldaketaren barnean egina.

Dirudienez, Abendaño izenekoa da kalearen azalera irtenarazi duten ur korrontea. Eta, honela, Gasteiz Hiribidean, erreka zaharra, zonbi bat bezala, atera zaigu lur azpitik. Izan ere, erreka horrek ez du oso itxura ona, ezta natura-la ere, baina itzuli egin da, eguzkipean da berriro, zatika bada ere.

Itsasoak edo ibai zabal batek asko ematen dio hiri bati, nortasuna, dotorezia, bizitza. Araban ez dugu itsasorik, eta hainbeste euri zerutik jaso arren, ganorazko ibai ederra ere ez daukagu Gasteizen. Gure Zadorra ez da handiegia eta gainera erdialdetik urrun samar dago.

Hala ere, aspaldiko mapak begiratuz gero, hainbat erreka baziren gaur egungo Gasteiz hiriak estaltzen duen esparruan. Ez dira handiak, xumeak eta apalak baizik. Baina gureak. Non daude gaur? Bada, urbanismoaren egitasmoek diseinatutako kale eta poligonoen asfaltoaren eta porlanaren azpian daude, eta hodietan egiten dute bidea Gasteizeko lurpean zehar. Antza, hiri-antolakuntzarako oztopo baino ez ziren, eta tamalez azaletik desagerrarazi ziren espaloi, etxe, errepide eta abar jartzeko.

Imajina ezazu erreka txiki horiek guztiak Gasteizen, Abendaño, Txirrio, Zapardiel... beren ingurune gertukoenarekin batera gordeta; imajina ezazu, kaleetatik zoazela, beren ibilbidean doazen erreka horiekin topo egitea. Berezia izango litzateke honelako tunel berdez jantzitako hiria. Nortasun berezkoa edukiko zuen Gasteizek, gertuko gauza xumeek, ederrek eta biziek ematen duten nortasun hori, hain zuzen ere.

Gasteiztarrok oker jokatzen dugu gauzak handinahiaz egin nahi ditugunean. Farfaileriaz betetako egitasmoak ez dira gurekin bat etortzen. Egunero gozatzeko moduko gauza atsegin eta apalekin askoz hobeto gabiltza. Eta gertuko gauza txikien aldekoa ez da apustu txarra hiria diseinatzean.

Errekak, gure erreka gertuko eta xume horiek, primeran leudeke hirian zehar egunerokoaren gozagarri. Bizia, koloreak eta zaratak ekarriko lituzkete Gasteizko kaleetara. Zaila izango da erreka guztiak berriro azalaraztea, baina zerbait ikas dezakegu honetatik guztitik: adibidez, eguneroko gauza txiki eta atseginei merezi duten garrantzia ematea, eta zaintzea. Izan ere, gertuko gauza txiki, eder, bizi eta atsegin horien artean badugu gure hizkuntza zaharra, azken hamarkadetan Gasteizko airera indar berriz azaleratu zaiguna, hiriaren edozein bazter kolorez eta zarataz betez.

Parte hartzeko:
Gehienez, 800 karaktere. Egilea, herria eta telefonoa zehaztu. ALEAK eskubidea du gutunak laburtzeko eta HIRINET.NET atariarekin elkarbanatzeko.
erredakzioa@arabakoalea.info

OKUPAZIOA

Hutsik dauden Errekaleorreko etxebizitzak okupatu dituzte hainbat familiek. | OIHANA E. E.

Errekaleorreko beste auzokideak

Argirik, kalefakziorik eta urik gabe bizi dira hainbat familia Udalak abandonatutako auzoan

ITSASO ESTARRONA *@itsasoestarrona*
GASTEIZ

Udalak Errekaleorrerako zituen planak bertan behera utzi zituenetik, auzokide mota ezberdinek egin dute topo bertan: batetik, birkokatze proposamena onartu ez eta bertan geratu nahi izan duten familia gutxiek; bestetik, ingurua biziberritzeko proiektua abiatu duten Errekaleor Bizirik ekimeneko gazteek; eta, azkenik, itzaletan bizi diren auzokideak daude. "Besteak".

Bizitzeko beste tokirik eduki ez, eta gutxienez sei etxebizitza okupatu dituzte. Gehienak nomadak dira, ijito errumaniarrak, duela gutxi arte Olarizutik gertuko kanpalekuetan bizi zirenak, tartean umeak ere. Argirik, kalefakziorik eta urik gabe bizi dira, Udalaren Ensanche 21 enpresarenak diren etxebizitzetan.

Ez dira lehenak. Udala 2008an hasi zen etxebizitzak hormatzen, bizilagun berrien sarrera saihesteko. Okupak kaleratzeko etxegabetze prozesuak abiatu ditu ere, baina batzuk joan eta besteak etortzen dira.

Egoera hau ez da Errekaleorren bakarrik gertatzen.Olarizun hutsik dauden Udalaren pisuetan ere familiak sartu dira. Errealitate honen aurrean, Udaleko EAJ taldeak proposamena egin dio aste honetan PP-ko gobernuari, biztanle hauen egoera jorratzeko plan bat martxan jarri dezan. "Udalean badago legez kanpoko kanpalekuen aurrean nola jokatu ezartzen duen protokoloa, baina kasu hau ezberdina da", azaldu du Nerea Melgosa zinegotzi jeltzaleak.

Proposamenaren funtsa hauxe da: kale hezitzaileek familia hauekin lan egin ahal izateko bideak zehaztea –gaur egun ezin baitira auzokide horien etxeetan sartu– eta, ondoren, inklusio prozesu batekin lotutako etxebizitza alternatibak eskaintzea.Oraingoz, udal gobernuaren ezetza jaso du planteamenduak. Ainhoa Domaica *popularrak* aste honetan berretsi duenez, etxegabetze zibilen tresna da oraingoz aurreikusten duten bakarra.

Gazteen proiektua, aurrera

Bitartean, Errekaleor Bizirik ekimena osatzen duten ia 70 gazteek lanean jarraitzen dute. Behin frontoia eta zinema berreskuratuta, taberna zaharra eraberritzen ari dira orain, txoko moduan erabiltzeko. Bestalde, birkokatzea onartu ez zuten bizilagunek dagoeneko jaso dute bere etxebizitzak uzteko zitazioa. Udalak oraindik ez dauka auzo honetarako planik.

Auzo baten kronologia

1960: Auzoa jaio zen, Olarizuko industrialdera lanera zetozenentzat.

1976: 1.200 auzokide.

2002: Udalak lehenengo birkokatzeak negoziatu zituen familiekin.

2008: Lehenengo okupen berri.

2010: Eraiste plana onartu zuen Udalak, etxe zaharrak bota eta 330 pisu berri egiteko.

2013: Gazte talde batek Errekaleor Bizirik proiektua abiatu zuen.

2015: Okupa berriak. Udalak oraindik ez du auzo honetarako planik.

Txagorritxu eta Gazalbide auzoak hobetzeko elkarte berria jaio da

Gizarte etxe berri bat aldarrikatuko dute, "edo, gutxienez, liburutegi bat ala auzokideentzat topaleku bat"

I. ESTARRONA
GASTEIZ

Echagorrichu. Hitz hori XVIII. mendeko dokumentuetan agertzen da, eta gaur egun Txagorritxu auzoa deritzogun zonaldeari erreferentzia egiteko erabiltzen da. Orain, toponimo hori berreskuratu eta Etxegorri elkartea sortu dute, auzoa hobetzeko asmoz.

Pasa den larunbatean aurkeztu zuten talde berria Abendaño ikastolan. Bertan azaldu zutenez, Txagorritxu eta Gazalbideko behar nagusien zerrenda osatu nahi dute ahalik eta auzokide gehienen ekarpenekin. Edonola ere, elkarteak dagoeneko hainbat helburu zerrendatu ditu. Horien artean, gizarte etxe bat aldarrikatzea, "ala, gutxienez, liburutegia edo auzokideentzat topaleku bat lortzea", El Pilar auzora joan behar ez izateko.

Beste asmoetako bat Gazalbideko merkatalgunea suspertzea da, bertan espazio publikoak irekiz. Izan ere, "auzoko bizitza eta jarduera komertzialari bultzada emateko leku aproposak ditu gune honek", elkartearen iritziz. Erosketak auzoan egiteko ekimenak abiatu nahi dituzte ere.

Umeen aisialdiarekin kezkatuta, jolasteko gune gehiago eskatuko dituzte, eta gazteekin ere lan egin nahi dute, lonjen erabiltzaileen eta auzokideen arteko elkarbizitza bermatzeko. Segurtasunerako puntu beltzak ezabatzea eta euskara sustatzea dira beste helburuetako batzuk. Hurrengo auzo batzarra datorren asteazkenerako deitu dute.

Abendaño ikastolan aurkeztu zuten auzo elkarte berria. | ETXEGORRI

Lonjen erabiltzaile eta auzokideen arteko elkarbizitza sustatu nahi dute

Datorren asteazkenerako deitu dute hurrengo auzokide batzarra

Mahai gainean

Gizarte etxea: ekipamendu berri bat nahi dute.

Komertzioa: Gazalbideko merkatalgunea berpiztu nahi dute.

Puntu beltzak: seguruak ez diren lekuetarako neurriak eskatuko dituzte.

Jai herrikoiak: auzokideek antolatutako festak egingo dituzte.

Euskara: hizkuntzaren erabilera suspertzeko asmoa dute.

Lonjak: gazteen eta bizilagunen arteko elkarbizitzaren alde egingo dute.

Umeek jolasteko gune gehiago nahi dituzte Etxegorri elkarteko auzokideek. | ETXEGORRI

UR AZPIEGITURA

Batzar Nagusiek Aiaraldeko ur honiketa arazoak konpontzeko agindu diote Aldundiari. | AIARALDEA.EUS

Aiaraldeko ur horniketa arazoak, Batzar Nagusietan

Eskualdean ur azpiegiturekin dituzten arazoak konpontzeko agindu diote Aldundiari

ERREDAKZIOA *@aiaraldea*
AIARALDEA

Batzar Nagusietan onartu zen duela astebete mozioa Aiaraldeko ur horniketaren inguruan. EH Bilduk testua aurkeztu ondoren, indar politiko guztiek, PP salbu, adostu zuten mozio berria. Horren helburua da Arabako Foru Aldundiak berehala abiatzea Aiara, Arrastaria eta Artziniegak dauzkaten ur horniketa arazoak konpontzeko lanak.

Aldi berean, Markixanako araztegiaren kasuan gauzak erraztea eta URA-rekin elkarlanean aritzeko agindu diote erakundeari. Horrekin guztiarekin, alderdien asmoa da Europatik hel daitezkeen isunak ere saihestea. Juanjo Yarritu Amurrioko Bilduko zinegotziak salatu du indarrean dagoen legealdian inbertsiorik ez dela egin eskualdeko ur horniketan: "Larriagoa da egoera konparazioak eginez gero, Arabar Errioxan 50 milioi euro inbertitu baitira".

PUNTAZO EGUNA

Amurrioko kuadrillen arteko Puntazo Eguna jaialdia urtarrilaren 31n ospatuko da. Ohiko ekintzak ez ezik –trikipoteoa, bazkaria, *puntazo momentua...*– Matias Landaburu kalean dagoen frontoian kontzertua egingo dute 22:00etatik aurrera Zea Mays, Akerbeltz eta Monkey Painters taldeen eskutik.

Zea Mays-ek joko du Amurrioko Puntazo egunean. | FLICKR: EZKILA KAPITAINA

KIROLA

Ganbegi Hockey taldeko jokalariak, Euskal aurreselekzioan

HECTOR BORGE *@hborge*
LAUDIO

Ganbegi 6-2 Hockey Taldeko sei jokalari deituak izan dira Euskal Kadete Aurreselekzioko entrenamenduetan parte hartzeko. Emakumezkoen esparruan, Laudioko Irune Larrazabal eta Nerea Mendibil jokalariak eta Iraia Sabater atezaina izan dira aukeratuak.

Gizonezkoen mailan, Aimar Sanjurjo eta Jon Fonbellida laudioarrak eta Iker Arrazuria luaiondoarra izan dira deituak. Selekzioko entrenamendu saioetan egon dira Donostian astelehenean, eta hurrengoa urtarrilaren 26an izango da.

JAIA

San Blas azokak txerriaren garrantzia goraipatuko du

ERREDAKZIOA *@aiaraldea*
LAUDIO

San Blas Jaiak helburu zehatza dauka, azoka antolatu eta giroa sortu ez ezik, antzinako bizimoduan txerriak zeukan garrantzia azpimarratzea. Txerrikiak ezinbesteko elikagaiak ziren baserritarren iraupenerako. Hori dela eta, urtarrilaren 28an ikusgai egongo da Terencio VIII. Laudioko plazan eta larunbatean, urtarrilaren 31n hain zuzen, txerriboda egingo dute.

Horrekin batera egitarau oparoa prestatu du Kukutxe San Blas elkarteak.

Zuia Euskaraz jaialdiko ekitaldietako bat, joan den ekainean. | INFO ZUIA

Hizkuntza irizpideak onartuko dituzte Zuian

Besteak beste, udalerriko dokumentu guztiak elebitan egotea bermatu nahi dute neurriokin

ANAKOZ AMENABAR *@anamenabar*
ZUIA

Lehengo hitza euskaraz egitea, herritarrei zuzendutako dokumentu orokor guztiak elebitan egotea bermatzea, ume eta gazteei zuzendutako jardueren kontratazioetan euskara ezinbesteko baldintza izan behar duela onartzea. Horiek eta beste zenbait hizkuntza irizpide onartuko dituzte Zuiako erakundeek datozen hilabeteetan, bakoitzaren errealitatera egokitutako neurrien bidez.

Aramaioko eta Legutioko udalek finkatuta dute dagoeneko euren egunerokoko hizkuntza politika, lekuan lekuko errealitatera egokituta. Orain, Zuiako, Zigoitiko, Urkabustaizko eta Arratzua-Ubarrundiako udalek onartuko dituzte hizkuntza irizpideak, Zuiako Kuadrillarekin batera.

Neurriak

Hemendik aurrera administrazio bakoitzak duen erabakigunean –udalek osoko bilkuretan, eta kuadrillak batzarrean– onartuko dituzte orain artean "konpromiso gisa" hartutako neurriak.

"Adostutako irizpideak" dira, Manex Agirre Zuiako Kuadrillako euskara teknikariak azaldu moduan. "Gutxieneko batetik abiatuta, hainbat bilera egin dira ordezkari politikoekin eta langileekin, eta administrazio egitura guztietan adostasuna lortu da, erabakiguneei behin betiko proposamena egin aurretik". Horretarako, garrantzitsua izan da, Agirrek azaldu moduan, udal bakoitzaren gaitasun eta egoerara egokitutako irizpide proposamenak egitea."

Joan den ekainean izandako sutearen ondorioz, erabat hondatu zen Izarrako eraikina. | AITOR ARRONIZ

PROIEKTU BERRIEN BILA

Izarrako eskola zaharrean egitasmo berri bat abian jartzeko proposamenen lehiaketa publikoa deitu du Arabako Aldundiak; maiatza arte jasoko ditu proposamenak. Hainbat urtez utzita izan ostean, iaz izandako sute baten eraginez, hondatuta geratu zen eskolako eraikin nagusia.

GIZARTEA

Adinekoen beharren azterlana egingo du Dulantziko Udalak datozen hilabeteetan. | ALEA

Edadetuentzako politika berezia abiatu du Dulantzik

Beharrak zeintzuk diren ezagutzeko, inkestak egingo dituzte datorren udaberrira bitartean

ANAKOZ AMENABAR *@anamenabar*
DULANTZI

Edadeko herritarrei arreta berezia jarri nahi die Dulantzik, eta horretarako, hainbat alorretan politika bereziak ezarri nahi dituzte. Etxebizitza, kultura eta aisia, eta gizarte zerbitzuetan eragin nahi dute neurrion bitartez; horiek izango dira hasierako atal nagusiak. "Zahartze aktiboa etorkizuneko estrategia ildoa izango da", azaldu du Zacarias Martin kultura eta kiroletako zinegotziak.

Munduko Osasun Erakundearen eskutik, 2008. urtean Edadetuekin Hiri Lagunkoiak diren herrien sarea osatu zuten, eta harekin bat egin berri du Dulantzik. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak sustatu eta Matia Fundazioak abiarazitako ekinaldia da eta helburua adinekoek eta, oro har, herritarrek udalerriak hobetzen parte har dezatela bultzatzea da, zahartu ahala nork bere bizimodua izaten jarraitu ahal izateko. Egitasmo horren bitartez, "konpromisoa eta aitortza" egin nahi die edadeko herritarrei, bertako alor guztietan parte hartzea errazteari begira.

Bizitza aktiboa eta autonomoa izaten jarraitzea, hein handi batean, hiri diseinua lagunkoia izatearen, segurtasuna bermatzearen eta etxeko inguruneak egokitzearen araberakoa izaten da, Marinek azaldu duen moduan, eta horretan lan egin nahi du Dulantzik.

Azterlana

Dulantzi Lagunkoia izeneko egitasmoa hainbat ataletan banatuko dute. Lehendabizikoan helburuak eta lan eremuak definituko dituzte. Horretarako, hurrengo hilabeetan hainbat inkesta egingo dituzte udalerrian: "Ehunka inkesta egingo ditugu herritarren artean, beharrak zeintzuk diren ezagutu eta hartu beharko ditugun neurriak zehazteko", aipatu du Martinek.

Kultura eskaintzari dagokionez, edadetuentzako gaur egun hainbat ikastaro eta ekitaldi antolatzen dituztela gogoratu du Martinek, baina horiek "indartzeko" ahalegina egin beharko dutela azaldu du. Udalerriko eraikinetako irisgarritasuna ere "hobetu" beharko dutela gogoratu du, beste atal batzuen artean. "Udaberrian, egiten ari garen inkestaren datuak jaso orduko, hasiko gara beharrezko neurriak zehazten".

Dulantzi udalerriko herriekin batera Añanako beste hainbatek ere egin dute bat Euskadi Lagunkoia ekinaldiarekin. Gasteiz ere Munduko Osasun Erakundeak bultzatuko ekimen honen partaide da eta lagunkoitasunaren aldeko egitasmoak garatzen ditu.

IKUS ENTZUN

Eskalatzaileen lana gerturatuko du bihar Araiako Mendi jaialdiak

A. AMENABAR
ARAIA

Mendia eta natura herritarrei gerturatzeko asmoz, laugarren urtea da Araian Mendi Festibala antolatzen dutena. Mendizaleekin elkartu eta euren abenturak ezagutzeko aukera da jaialdia.

Juan Arbeloa eta Carlos Soriak bizitako abenturen ostean, bihar Ana Ruizek eta Idoia Rubialek kontatuko dute esperientzia *Neskalatzaileak* izenburupean. Andra Mari aretoan izango da, 18:00etan. Hurrengo astean espeleologiaz arituko dira.

IKASTAROA

Mozorroa osatzeko, efektu berezien saioa prestatu dute

A. AMENABAR
DULANTZI

Inauteriak gerturatzen ari dira, eta Dulantzin horiek prestatzen hasteko ikastaroa antolatu dute. Karakterizazio eta efektu berezien lantegia antolatu dute, aurtengo mozorroa osatzen laguntzeko.

Otsailaren 10ean izango da bi orduko ikastaroa Maitena Espinosa irakaslearekin. Haurrentzako saio bat izango da, 17:30ean, eta gazte eta helduentzako beste bat,19:00etan. Parte hartzeko, herriko kultur etxean eman beharko da izena, jarduera baino bi egun lehenago.

Txakurren laguntzarekin boilur beltza bilatzeko hainbat saio izango dira Gaubean, otsailan eta martxoan. | ALEA

Onddoak bilatzeko saioak izango dira Gaubean, neguko jardueren artean

Udal liburutegian euskara ikasteko edota sare sozialetan aritzeko ikastaroak izango dira

ESTITXU UGARTE *@estitxuugarte*
URIBARRI GAUBEA

Euskara, astronomia, joskintza eta sare sozialak dira Gaubeako udal liburutegiak ikasturte honetarako prestatu dituen ikastaroen protagonista nagusiak. Halaber, urtero legez, neguko boilurra ezagutzeko bisitaldi gidatuak antolatu dituzte Gaubeako turismo bulegoan; otsailan eta martxoan izango dira mendi irteerak.

Udal liburutegiak antolaturiko ikastaroen artean, euskara ikasten hasi edo ikasten jarraitu nahi duten bizilagunek lehenbailehen izena eman beharko dute, eskaeraren arabera zehaztu behar baitituzte antolatuko dituzten euskara taldeak eta ordutegiak. Matrikulan %80ko dirulaguntza jasoko dute izena ematen duten ikasleek.

Joskintza ikastaroari dagokionez, datorren astelehenean hasi eta apirilaren 20an amaituko da; astelehenero egingo dute 17:00etatik 19:00ak arte.

Beste alde batetik, sare sozialak ezagutzeko tailerrean Facebook, Twitter, eta Youtube-ri buruz oinarrizko ezagutzak emango dituzte; asteartero elkartuko dira, 11:00etatik 13:00ak arte. Otsailaren 3an hasiko da teknologia berrien ikastaroa eta martxoak 17an bukatu.

Zeruari begira

Astronomia tailerra larunbatena, hilak 24, hasiko da eta astero egingo dute udara bitartean. Antolatzaileek azaldu dutenez, kanpoko saioak eta barruko saioak txandakatzen saiatuko dira aurten, "ikastaroa atseginagoa" izan dadin, astronomiari buruzko teoria eta praktika tartekatuta.

Hala, hamar saio antolatu dituzte kanpoan, eta Gaubean edo Zaballan egingo dituzte eguraldiaren arabera. Horietan 50 izar multzo ikusiko dituzte; ilargiaren kraterrak, itsasoak, Iparraldeko zerua, Venus, Marte, edo Saturno, "eta agian Urano ere bilatuko dugu". Beste hogei saio barruan egingo dituzte, udal liburutegian, astronomiari buruzko alde teorikoagoa lantzeko. "Saiatuko gara parte hartzeko saioak antolatzen, oso bisualak, eta dinamikoak", azaldu dute antolatzaileek.

Boilur beltza

Bestetik, Gaubeako turismo bulegoak boilur beltza deskubritzeko bisitaldi gidatuak egingo ditu hurrengo hilabeteetan; otsailaren 7an, 27an eta martxoaren 7an izango dira txangoak. Boilur beltzaren azalpen txiki baten ondoren, bisitariak Basabe herrian dagoen boilur soro batera eramango dituzte, eta bertan txakur baten laguntzarekin boilurrak bilatzeko saioa egingo dute. Usaimenaren bitartez aurkituko dituzte txakurrek onddoak.

Ondoren, hartu berri duten boilur beltzarekin egindako pintxoak dastatzeko aukera izango dute Valpuesta herriko Los Canonigos jatetxean. Halaber, boilur freskoa edota harekin egindako produktuak erosi nahi dutenek bertan izango dute aukera. Txangoetan parte hartu nahi dutenek izena eman beharko dute aurretik udalerriko turismo bulegoan (945 353 040).

Kontsumo eredu berria labean

Mendialdeako produktuak eskaintzeko eta balioan jartzeko, agrodenda ireki dute Azazetan

Labur-labur

Non dago agrodenda? Azazetako iturriaren aurrean.

Noiz irekitzen dute? Ostiral, larunbat eta igandeetan. 10.30etatik 14.00etara eta 16.30etatik 20.00etara.

Apaletan...

Arraultzak: Azazeta

Boilurra: Harana

Eztia: Antoñana eta Apinaiz (*Apellaniz*).

Gazta: Harana.

Lekaleak: Harana

Moxal haragia: Azazeta.

Odolkiak: Maeztu

Ogia: Azazeta

Patatak: Trokoniz

Txorizoa: Meano.

ITSASO ESTARRONA *@itsasoestarrona*
AZAZETA

Bertako denda txiki gehienak desagertu, eta Gasteizko supermerkatu handietan egin ohi dituzte erosketak Mendialdeako biztanleek. Baina gertuago badute merkatu bereziago bat: lurra. Despentsa oso bat betetzeko adina produktu ekoizten dituzte Arabako kuadrilla honetako nekazari eta abeltzainek: ogia, lekaleak, zaldi haragia, gazta, fruitu lehorrak... Orain, jaki horiek guztiak herritar eta bisitarien esku jartzeko, agrodenda ireki berri dute Azazetan.

Mendizale askok ura hartu ohi duten iturriaren ondoan abiatu dute egitasmo berri hau, Azazetako Herri Batzarraren laguntzarekin. Modu iraunkorrean eta kalitatea zainduz lan egiten duten bertako nekazari eta abeltzainen produktuak jarri nahi izan dituzte herritarren esku. Izan ere, "gaur egun mota honetako jakiak eskuratzeko bideak falta dira oraindik", Anna Monserratek azaldu duen bezala. Bera eta Arrate Martínez de Lahidalga dira proiektu berri honetako arduradunak eta, hurbileko produktuak eskaintzeaz gain, kontsumo eredu berria sustatu nahi dute ere. Horretarako, "ekoizle eta kontsumitzaileen arteko topagune bilakatu" eta produktoreek egiten duten lanaren balioa ezagutarazi nahi diete hurbiltzen direnei.

Ogia, produktu izarra

Saltokiari *Vereda* jarri diote izena, auzolana esateko modu oso zabaldua delako Mendialdean eta, aurrerago, topaketak eta bestelako jarduerak antolatu nahiko lituzkete.

Agrodenda dagoen eraikinaren goiko pisuan, ogi lantegia dago. Bertan, Oihana Arnaiz eta Nacho Beltrán de Herediak ogi artisaua egiten dute, ama orea baliatuz. Inguruetan saltzeaz gain, Gasteizen gero eta bezero gehiago dituzte, batez ere saski ekologikoak erosten dituztenen artean.

Hori bezala, Mendialdean mota honetako ekimenak haziz doazela nabarmendu du Anna Monserratek: "Gero eta jende gehiagok bizi nahi du modu iraunkor batean nekazal eremuetan". Batzuetan, dio, ez da erreza, "ehun oilo edo 5.000 izateko arau berdinak jartzen dizkizutelako, eta sarritan laguntza gehiago daudelako ilea-paindegi bat edo bestelako saltoki bat irekitzeko, inguruarekin lotura estuagoa duen lehenengo sektoreko ekimen bat abiatzeko baino". Hala ere, "aukerak badaude", eta Mendialdean gero eta gehiago dira kontsumo eta bizitza eredu berrien aldeko apustua egiten duten herritarrak.

"Ekoizle eta kontsumitzaileen arteko topagune izan nahi dugu, eta bertakoa sustatu"

"Mendialdean, gero eta jende gehiagok egiten du modu iraunkorrean bizitzeko hautua"

ANNA MONSERRAT
AGRODENDAKO KIDEA

Vereda agrodenda eta Mendialdeko Ogia dauden eraikina, Azazetan. | ALEA

Argantzun herriko ikuspegi orokorra. | ALEA

Trebiñuko Obekuri herria. | ALEA

Erronka bat, errealitate bi

Anai-arrebak izan arren, paisaia soziala, klima eta jarduera administratibo ezberdinak dituzte Argantzunek eta Trebiñuk

ANDONI LLOSA
ARGANTZUN

Aspaldiko partez nahiko sarri azaldu zaizkigu Argantzun eta Trebiñuko Konderria uztarturik komunikabideetan. Dena den, hainbat gauza partekatzen badituzte ere, badaude ere bien arteko ezberdintasun ugari. Ikus ditzagun batzuk.

Trebiñuko Konderria izugarri zabala da eta bere baitan 47 herri sakabanatzen dira. Herri horietako asko Auzo Batzarrak dira, haien interesa sortzen duten zenbait gai jorratzeko eta erabakiak hartzeko ahalmenarekin. Trebiñuko Konderriko herri ugaritasun honek berebiziko garrantzia du udalerri honen eguneroko kudeaketan, iritzi-lobbyak oso ugariak baitira eta askotan lobby horien interes partikularrek ez baitute bat egiten Udaletxeko interesekin. Barnetik ezagutu dugun orok ondo dakigunez, udalerri honen gestioa benetan zaila da inolako zalantzarik gabe, Araba eta Burgosen auzia alde batera utzita ere.

Ezker eta eskuin

Bestetik, zer nolako paisaia soziala dago Konderrian? Nekazaritzak oraindik ere garrantzi handia duen eremu honetan, antzeko askotan bezalaxe, bertako "betiko" bizilagun ugari kontserbadoreak dira eta eskuineko indarrek udalerria gobernatzeko giltza izan ohi dute hainbat legealditan. Egoera hau aldatzen ari da pixkanaka, agian beste inguru batzuetatik etorritako bizilagun askok beste profil politiko-soziala ekartzen dutelako aldean, baita belaunaldien arteko erreleboagatik ere.

Argantzungo Udalerria, aldiz, oso bestelakoa da zentzu askotan. Batetik, bere hedadura nabarmen txikiagoa da eta horrek izugarrizko aldea dakar bizitzaren eguneroko kontu gehienetan. Bestetik, Zadorra ertzeko udalerri honek bi gune baizik ez ditu, alegia, Argantzun bera eta Billa Oka herrixka. Horren ondorioz iritzi-lobbyak eta presioak Trebiñuko Konderrian baino askoz urriagoak dira, eguneroko gestioaren mesedean. Laburbilduz, lurralde txikiagoa, herri bi bakarrik eta bizilagunen herena, Konderriaren aldean.

Konderria nekazal eremua da batik bat; Argantzun, urbanoagoa

Argantzungo paisaia politiko-soziala zeharo ezberdina da, seguruenez nortasun *urbanoagoaren* eraginez. Nekazaritzak ez du Trebiñun besteko indarrik eta bertako bizilagun ugari Gasteizen lanean ari diren hiritarrak dira. Horrek guztiak eragina izan behar du bertako bizilagunen profil sozio-politikoan eta zalantzarik ez dago indar kontserbadoreek Argantzunen Trebiñun baino indar txikiagoa izan dutela beti, ezkerrak ez bezala.

Bistan da, beraz, iragan historiko eta helburu administratibo partekatua duten udalerri hauek badituztela oso ezberdintasun ugari eta esanguratsuak. Aipatutakoez gain beste hainbat ere esan daitezke, azaletik bada ere: euskararen bilakaera eta erabilera historikoa askoz luzeagoa eta gardenagoa izan da Konderrian (batez ere ekialdean) Argantzunen baino, toponimiak adierazten duen bezala. Gaur egun, berriz, oso antzeko datu soziolinguistikoak daude.

Uzta garai ezberdinak

Klima aldetik ere badaude aldeak, Konderriko Armentiako Bentetatik ekialdera dauden lurrak Argantzungoak baino dezente hotzagoak baitira. Gari-uzta batzeko orduan hiru asteko aldea izan daiteke Zadorra inguruko eremu epelen eta Baxauri edo Lañuko soro hotzen artean. Eta beste makina bat adibide jar genezake baina hurrengo baterako izan beharko da, gusto baduzue...

EUSKARA

Arabako ikastolen jaia aurkezteko Oiongo San Bizente eskolan egindako ekitaldia. | ALEA

Araba Euskaraz aurkezteko ekitaldia egingo dute bihar

Oiongo Bazterra aretoan aurkeztuko dute ekainaren 15ean ospatuko duten Arabako ikastolen jaia

A. AMENABAR *@anamenabar*
OION

Bosgarren aldiz antolatuko du Oiongo San Bizente ikastolak Arabako ikastolen jai handia. Aurreko laurak herrian bertan izan baziren ere, Gasteizen ospatuko dute aurten, hiriburuan euskaltzale gehiagora heltzeko asmoarekin. Horren guztiaren berri bihar emango dute, Oionen egingo duten aurkezpen ofizialean; 13:00etan izango da, Bazterra aretoan.

"Piztu euskara" goiburu, ekainaren 14an ospatuko dute aurtengo Araba Euskaraz. Gasteizko Prado parkean hasi eta Armentiako baselizaraino zabalduko da ibilbidea; musika, dantza eta bestelako hamaika ekitaldi ez dira faltako ibilbide guztian zehar.

Erronka, gazteentzat

Araba Euskaraz aurkeztearekin batera, Erronka izeneko ekitaldia ere aurkeztuko dute bihar, lurraldeko ikasle, irakasle eta gurasoen parte hartzea sustatzea helburu duen jokua. Aurreko jaialdietan izan duen arrakastaren ondoren, aurten joku hori indartzea erabaki dute antolatzaileek. Aurrekari gisa, bihar bertan egingo dute lehenengo Erronka, 12:30ean; hamasei urtetik gorako gazteek parte hartu ahal izango dute ginkana moduko probetan. Sei laguneko taldeetan hainbat proba gainditu beharko dituzte.

Erronka proba eta aurkezpen ekitaldiarekin batera, hamaiketakoa prestatuko dute eta haurrentzako jolasak ere izango dira bihar eguerdian.

AISIA

San Anastasio jaiak ospatuko dituzte asteburuan, Oionen

A. AMENABAR
OION

Asteazkenean hasitako San Anastasio eta San Bizente jaiekin jarraituko dute asteburu honetan Oionen. Dantza, antzerkia eta haurrentzako jolasak ez dira faltako igandera bitartean.

Goiz eta arratsaldez haurrek jolas parkea izango dute gaur 19:00ak bitartean. Ondoren, bertso poteoak eta dantzaldiak girotuko ditu Oiongo bazterrak. Araba Euskarazen aurkezpenarekin batera, bihar ere ez da faltako musikarik. Haurrentzako ikuskizunarekin eta antzerkiaren amaituko dira ekitaldiak igandean.

Oiongo dantzarien saioa. | ALEA

AZPIEGITURAK

Santa Maria kaleko lanak hasiko dituzte Villabuenan

A. AMENABAR
VILLABUENA

Villabuenako kaleetako berritze lanen erdia amaitu dela adierazi du herriko alkate Juanjo Garciak. Herreria eta Nagusia kaleetako lanak amaitu ostean, Santa Maria kaleko lanei ekingo diete.

Guztira, 700.000 euroko aurrekontua izango dute berritze lanek; Arabako Foru Aldundiaren laguntzarekin eta Eusko Jaurlaritzako Erein egitasmoaren bitartez finantzatuko dutela nabarmendu du Garciak.

Beste alde batetik, Villabuenako araztegira ura kanalizatzeko egiten ari diren lanak baliatuko dituzte, herriko zeharbidea urbanizatzeko, alkateak aipatu moduan; oinezkoentzako espaloia eraikiko dute zeharbidean. Herriko kanposantuan egin beharreko lanei dagokionez, bestalde, bertako horma-hobi zaharrentzako teilatu bat paratuko dutela iragarri du.

Joan den larunbatean aurkeztu zuten, Langraiz Okan, Arabako Bertsolari Txapelketa. | IÑAKI TENA

Bertsoaren lehia, prest

Igandean ekingo dio Arabako Bertsolari Txapelketak, Dulantzin, egungo txapeldun Oihane Perearekin; sei bertsolari onenek final handia jokatuko dute martxoaren 21ean Gasteizko Principal antzokian **ANAKOZ AMENABAR** *@anamenabar* LANGRAIZ OKA

Bi urteren ostean, iazko kuadrillen arteko txapelketa eta gero, ate joka dator Arabako Bertsolari Txapelketa. 2013ko martxoaren 16az geroztik, Oihane Perea da txapeldun nagusi, eta horri eusten saiatuko da aurten ere, igandean Dulantzi hasiko den jaialdian. Harekin batera, lehen finalaurreko honetan, Ruben Sanchez, Iker Pastor, Unai Bengoetxea, Ander Solozabal eta Irati Anda bertsolariak arituko dira agertokian, final handirako txartelaren bila.

Ez dute lan erraza izango, hamazortzi bertsolariren artean sei bakarrik sailkatuko baitira finalerako. Dulantziren ostean, Laudio, Legutio, Aramaio, Zigoitia eta Langraiz Oka hartuko ditu bertsoaren festak, Gasteizko Principal antzokian martxoaren 21ean egingo duten finalaren aurretik.

Pauso bat harago

Aurten "pauso bat gehiago" eman nahi dutela azaldu du Asier Lafuente txapelketako koordinatzaileak, eta txapelketa beraren izena indartu nahi dutela: Arabako Bertsolari Txapelketa. "Desbideratu gabe, txapelketak berak eta bere izenak ezin hobeto erakusten dute atzetik dagoen Arabako bertsolaritza mugimendua; ez da gehiago behar". Bertso-eskolak, transmisioa, bertsozaletasuna. Izenak berak horiek "batzen" dituela uste du Lafuentek.

Azken urteetan bertsolari eta kuadrilla arteko txapelketak tartekatu dituzte, urtez urte. Bertsolari txapelketan bertan, parte hartzeko aukera nabarmen zabaldu zuten 2011 eta 2013. urteetan, eta berriz ere "mugatu" egingo dute aurten. "Parte hartzea murriztuz bertsolariari kontzentratzeko eta gogoz ekiteko aukera emango diogu".

Iñigo Urkullu lehendakariak parte hartu zuen asteleheneko inaugurazio ekitaldian. | ALEA

Erromanikoa, gertutik

Arte korronte horrek Araban izan zuen garrantzia nabarmentzeko, interpretazio zentroa inauguratu dute Estibalizen | **ANAKOZ AMENABAR** *@anamenabar* ESTIBALIZ

Estibalizko santutegia bisitatzen duenak, aurrerantzean, lurraldeko erromanikoaren interpretazio zentroarekin egingo du topo. Estibalizko Ama kultur elkartearen ekimenez antolatutako bilduman, arte korronte honen garrantzia azpimarratzeko helburuarekin, haren jatorri eta garapen orokorra ezagutuko du bisitariak. "Baliabide ekonomiko oso gutxirekin baina ahalegin eta ilusio handiarekin sortu dugu", azaldu du Mari Jesus Pinedo elkarteko presidenteak. 2010ean erabaki zuten arte erromanikoari buruzko museoa abian jartzea.

Guztira, 240 eliza, ermita eta parrokiak osatzen dute erromanikoaren ondarean lurraldean, eta horien artean, hain zuzen, esanguratsuena da Estibalizko santutegia, eta horregatik erabaki zuten bertan paratzea. Estibalizko Ama elkartearekin batera, hainbat lagun aritu dira prestaketa lanetan, tartean arte erromanikoan aditua den Jose Luis Lopez de Okariz irakaslea. Eusko Jaurlaritzak 170.000 eurorekin lagundu du egitasmoa, eta Arabako Aldundiak ere egingo du ekarpena.

Santutegia

Lau espazio ditu aretoak. Erromanikoaren jatorrietatik abiatuta, X. mendean aurrera Europa osoan izan zuen garrantzitsua agerian geratzen da; irudiak, testuak, maketak eta mapak tartekatzen dira, ikusentzunezkoekin batera. Bigarren atalean Araban erromanikoak izan zuen hedapena ezagutu daiteke; lurraldeko erromanikoak baditu ezaugarri propioak, eta horien inguruko hamaika datu paratu dituzte. X. eta XII. mendean eraiki zituzten, nabe bakarreko elizak dira gehienak, estu eta luzeak.

Estibalizko santutegiak berak leku propioa du erakusketan. Eraikinaren ezaugarri nabarmenen inguruko azalpenak bildu dituzte. Azkenik, Done Jakue bideak Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan dituen kostako eta barnealdeko ibilbideetan erromanikoak dituen aipagarrienak jaso dituzte horma irudi batean.

Kartzelako pintura lanak

Emakume presoen pintura lanen erakusketa paratu du Luis de Ajuria aretoak, eta hilabete amaiera arte izango da ikusgai **A. AMENABAR** GASTEIZ

Hamar urte dira Sidalava Arabako Hiesaren Kontrako Batzordeko boluntario talde bat pintura artistikoko ikastaroak ematen hasi zela Langraiz Okako espetxeko emakume preso talde bati. Azken urtean egindako lanaren emaitza Luis de Ajuria aretoan dago ikusgai, bertan antolatutako erakusketan. Hilaren amaiera arte izango da.

"Gure helburua da espetxearen barruan askatasun leku bat sortzea, pertsonen arteko komunikazioa eta harremana sustatu eta bertan, teknika artistikoak ikasteaz gain, parte-hartzaileek hitz egiteko aukera izatea, espetxeko beste gune batzuetan zaila izaten baita", azaldu dute egitasmoko antolatzaileek.

Erakusketako lan bat. | ALEA

Espazioa

Azkeneko urtean, astean bi egunez izan dituzte pintura saioak kartzelan. Teknika ikasteko saioak izan dira, baina presoek landutako gaiak nabarmendu dituzte monitoreek. Espetxean egindako lan artistikoetan "espazioak" duen berebiziko garrantzia azpimarratu dute: "Espetxean 'espazio' hitzak esanahi xumea du, doi-doia, itxia eta, aldi berean, handik kanpo geratzen den unibertso zabal eta ezezagun bat irudikatzen du".

Joan den abenduaren 16an banatu zituzten Lazarraga sariak, herrialdean euskararen alde lan egiten duten eragileen artean. | BAI EUSKARARI

Lan eta bizi, euskaraz

Lan mundua euskaratzeko helburuarekin lanean ari da Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkartea; enpresak, saltokiak eta era guztietako entitateak euskararen ezagutza eta erabilera areagotzeko neurriak ezarri dituzte **BAI EUSKARARI** *@baieuskarari* GASTEIZ

Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkartea Euskal Herri osoan ari da lanean arlo sozioekonomikoaren euskalduntzean eragiteko helburuarekin. Horretarako, erreminta nagusi du Bai Euskarari ziurtagiria. Enpresak, saltokiak eta era guztietako entitateak euskararen ezagutza eta erabilera areagotzeko neurriak garatzen ari direla egiaztatzen du Bai Euskarari ziurtagiriak eta hiru dira bere mailak: "zerbitzua eta lana euskaraz" maila gorena, "zerbitzua euskaraz" eta "bidean". Araban ziurtagiridunak 126 dira gaur egun, kopuru osoaren %9,3.

Arabako arlo sozioekonomikoaren euskalduntzean eragitea da elkartearen xedea, espazioak euskalduntzea estrategikoa baita hizkuntza batean normaltasunez lan egin eta bizi ahal izateko. "Lanean ematen dugun denboragatik edota produktu eta zerbitzuen kontsumitzaile izateagatik, eragina du gure bizimoduan eta hizkuntza jardueran". Helburu hori lortzeko bidean proiektu eta ekintza ezberdinak garatzen ari da Bai Euskarari herrialdean.

bai euskarari | Ziurtagiriaren Elkartea

Egitasmo ugari

Gasteizko Udalak eta Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkarteak lankidetza hitzarmena sinatu zuen joan den urtean, hiriko merkataritzan eragiteko. Abenduaren 16an harrera egin zien Udalak hiriko ziurtagiridunei, Javier Maroto alkatea buru zela.

Arabako Foru Aldundiarekin elkarlanean, beste alde batetik, Lazarraga sariak antolatzen dituzte bi urtean behin, herrialdean euskararen alde lan egin duten entitate eta pertsonak saritzeko eta haien ahalegina aitortzeko. Besa upategiak, Electra Vitoriak, Oreka IT-k, Agirre Lekue botikak eta Egamasterreko Aner Garmendiak jaso zuten iaz saria.

Egitasmoen artean, halaber, Euskararen Egunaren harira, Mintzodromoa antolatzen dute urtero Gasteizko hainbat hezkuntza zentrotako 400 ikasle inguru bildu ziren iazko abenduan Oihaneder Euskararen Etxean.

Lurraldeko egitasmoekin batera, Ziurtagiriaren Elkarteak Euskal Herri mailako beste bi proiektu ere baditu. Enpresarean, batetik, – *enpresarean.eus*–, euskaraz lan egin nahi duten enpresen eta profesionalen arteko harremana eta elkarlana sustatzeko. Eta Lansarean, bestetik, –*lansarean.eus* – lana euskaraz bilatu eta eskaintzeko on line plataforma.

Gazteak behetik gora

Udalak bere erabakietan gazteen ahotsa kontuan har dezan, GazteTopa proiektua burutu dute Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak eta Gasteizko Gazteria Zerbitzuak. Ondorio mamitsuak ezagutarazi berri dituzte. **ITSASO ESTARRONA** *@itsasoestarrona* GASTEIZ

Gazteentzat hartu ohi dira erabakiak... baino gazteak kontuan izan gabe! Hori da hainbat elkarte biltzen dituen Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak behin eta berriz salatu duena. Jokabide hori gainditzeko, GazteTopa proiektua burutu berri du, Gasteizko Udaleko Gazteria Zerbitzuarekin batera.

Nola egin, gazteek bere bizitzetan eragina duten erabaki politikoetan zeresana izan dezaten? Galdera horri erantzunak bilatzea izan da ekimenaren helburu nagusia. Hori lortzeko, elkarrekin gutxitan esertzen diren hiru profiletako pertsonak bildu ditu mahai baten inguruan, Hiruburu izeneko topaketetan: gazteak, politikariak eta Udaleko teknikariak. Guztira, hirurogei lagun baino gehiagok parte hartu dute saioetan, gazteen egunerokotasunean pisua duten hiru gai lantzeko: etxebizitza arazoak, proiektu autogestionatuak eta enplegua.

Udalaren beka... prekarioak?

Banan-bana eta luparekin aztertu dituzte esparru horietan Gasteizko Udalak diseinatutako neurrietako batzuk; tartean, "Lehenengo lan esperientzia" izeneko ekintza. Programa horren bitartez, hamaika gaztek beka jaso dute, formakuntza ikastaro bat egin eta, ostean, hiru hilabetez lan egiteko, sei orduko jardunaldian 500 euroren truke.

Bada, Udalak gauza batzuk aldatu beharko lituzke beka horietan, GazteTopan parte hartu duten gazteen arabera: batetik, programaren iraupena luzatu beharko luke, "hiru hilabete ez direlako nahikoa lanpostu baten funtzionamendua barneratzeko"; bestetik, beka bat jaso beharrean, programan parte hartzen dutenek kontratu bat izan beharko lukete (praktiketako kontratua, adibidez), enpresarekin lotura juridiko bat izateko; eta, bukatzeko, lantoki bakoitzean praktiketan egon daitezkeen pertsona kopurua mugatzea eskatzen dute, enpresariek ez ditzaten bekadunak erabili lanpostuak ordezkatzeko. Gaur egun planteatuta dagoen moduan –diote ondorio txostenean–, "Udalaren neurri honek ez du kalitatezko enplegurik sortzen".

Langabezia ez da arazo bakarra

Programa horretan parte hartzeko jartzen zaizkien baldintzak aldatzea proposatu dute ere. Orain arte, langabezian egon beharra zegoen beka horietako bat lortzeko. Zer gertatzen zen bere formakuntzarekin loturarik ez zuen zerbaitetan lanean ari ziren gazteekin? Eta zer, epe oso labur baterako eta baldintza prekarioetan lan egiteko mikrokontratuak zituztenekin? Horiek ezin zuten beka eskatu, eta hori aldatzeko proposamena luzatu dute topaketetan.

Horiek guztiak programa zehatz baten inguruan egin dituzten ekarpenak dira, baina Udalaren beste neurri asko aztertu dituzte, besteak beste, kontratazioak egiteko erabili daitezkeen gazteen aldeko klausulak, gazteentzat abiatu duten alokairu programa eta proiektu autogestionatuak garatzeko dauden arazoak. Desadostasunak azaleratu dituzte bildutako politikari, teknikari eta gazteek, eta adostasun batzuetara ere iritsi dira. Gauza batean bat datoz parte hartu dutenek: "aberasgarriak dira" mota honetako topaguneak. Hori bai, gazteek ohartarazi dutenez, "iritzia emateaz gain, erabakien parte izan" nahi dute.

Ondorio hauek guztiak webgunean eskegi ditu Gazteriaren Kontseiluak (egk.org), eta astelehenean Udaleko talde politikoen aurrean aurkeztuko ditu, Kultura batzordean.

> Gazteria iritzia emateaz gain, erabakiak hartzean parte izatea

> Etxebizitza lagatzen edo alokatzen duena saritu eta hutsik edo erabili gabe duena zigortu

> Gazte askok gizarte etxeetako espazioak erabiltzeak dakartzan gastuak ezin dituzte gain hartu

> Lanpostuak ordezkatu ez ditzaten, enpresa bakoitzean praktiketan egon daitezkeen pertsona kopurua mugatzea

ZURE ARBELA

Aker Beitu zer ondo pasa genuen Oihanederren Baskoniako maskotarekin!

Ilaran Puxikak, jolasak, jantziak, dantzak... primeran pasa genuen ALEA aldizkariko jaian, ez da?

Eguzkitsu Ibaik paisaia argitsu eta artsitiko hau marraztu du. Zenbat kolore!

Bidali zure argazki eta marrazkiak *erredazkioa@arabakoalea.info* helbidera!

Etxea Loreak, untxia, tximeleta..... zenbat gauza ede marraztu dituen Lukenek

HITZ GURUTZATUAK

Hitz gurutzatuak Asmatu itzazu zerrendan dauden hitzak eta bete lauki zuriak.

		Z		■	Z			
			■					U
	A						■	
T						■	G	
			L	■				R
	K	■		O				
E	■							K
			I		■			
O				■			I	

Ezker eskuin 1. Txoriak ehizatzeko tranpa, lakio. Arabako udalerria, Gorbeialdean. 2. Emakume izena. Txistu, istu. 3. Nauzu. Kontsonantea. 4. Albaniako hiriburua. Gernikak hasieran du. 5. Ez erraz. Gizon izena. 6. Ikasturtearen hasieran. Gipuzkoako hiriburua izan zen 1844 eta 1854 bitartean. 7. Bokala. Egur zatiak. 8. Ogia egiteko laborea. Garai, aldi. 9. Gipuzkoako ibaia. Eguzkia.

Goitik behera 1. Arabako Errioxako udalerria. 2. Senideak. Ez eme. 3. Ebaki sakon. Gaixo. 4. Bokal biribila. Metal alkalino. 5. Behar. Eskaini. 6. Guraize edo artazi handia. Bokala. 7. Askotan, maiz. Futbol-tantoak. 8. Italiak hasieran du. Goizeko otordu. 9. Oso-oso egokia edo ona.

SOLUZIOA

L	A	Z	O	■	Z	U	I	A
A	N	A	■	L	I	S	T	U
N	A	U	K	A	Z	U	■	K
T	I	R	A	N	A	■	G	E
Z	A	I	L	■	I	G	O	R
I	K	■	T	O	L	O	S	A
E	■	Z	E	P	A	L	A	K
G	A	R	I	A	■	A	R	O
O	R	I	O	■	E	K	I	A

POSTONTZIA

GASTEIZ
Esti Crespo
"Zorionak, Esti! Zure adiskidetasunaz orain arte bezala gozatzen jarraitu nahi dugu. Zure kuadrillako lagunak".

GASTEIZ
Monika Moriel
"Zorionak, Monika! Urteak gora eta gu ere gora ta gora beti elkarrekin une ederrak euskaraz biziz! Zure mintzalagunak".

GASTEIZ
Kenai Martínez
"Ongi etorri mundura, txiki! Salburuako kuadrilla".

GASTEIZ
Dani Cruz Asensio
"Zorionak zure familiaren partez, guapisimo!"

Norbaiti zure mezua helarazi nahi al diozu? Bidali astelehena baino lehen: *erredakzioa@arabakoalea.info*

ZURE ARGAZKIAK

Parte hartzeko Bidali zure argazkia *erredakzioa@arabakoalea.info* helbidera eta aipatu non eta noiz atera duzun.

Olarizuko muinoa Asier Sarasua.

Elurra Sansomendin Juan Carlos Garcia.



Gasteizko teilatuak Oihana Estarrona.

Peña Obi Aloña Garmendia.

HITZ GEZIDUNA

		* Arabako hiriburua / Zuhaitz mota		Peruko hiriburua / Gaituzte		Bizkaiko herria / Sodioa balio du		
		Lepoak, idunak / Ehuna						
Ganbara / Borondaterik ez		Bururatua / Zati hiru				Bokal mehea / Musika nota		
					Lotan / Begiko mintz biribil			
Behiaren okela / Bizkaiko mendatea								Naizen honek
							Kontso-nantea / Herri hizke-ran, eta	
Behorra arreske / Eskuko tresnak				Ugatz / Boroaren ikurra				

SOLUZIOAK

HITZ GEZIDUNA

SUDOKUA

1	6	5	2	9	4	3	8	7
9	7	2	3	8	6	5	1	4
3	8	4	5	1	7	6	2	9
5	9	7	6	4	2	1	3	8
2	4	8	1	5	3	9	7	6
6	1	3	9	7	8	2	4	5
7	2	1	8	6	5	4	9	3
8	5	9	4	3	1	7	6	2
4	3	6	7	2	9	8	5	1

GOITIBEHERA

SUDOKUA

		5			4			7
				8		5		
	8						2	9
5	9			4		1	3	
			1		3			
	1	3		7			4	5
7	2						9	
		9		3				
4			7			8		

Nola jokatu? 9x9-ko lauki honetako gelaxka hutsak bete behar dituzu, 1etik 9ra bitarteko zenbakiekin; zenbaki bakar bat ere ez da bi aldiz azaltzen errenkada eta zutabe berean, eta ezta dagokion 3x3-ko laukian ere.

GOITIBEHERA



Nola jokatu? Goiti eta beheiti letra bat gutxiago edo gehiago du asmatu behar duzun hitzak.
1. Jatekoa. 2. Emakume izena. 3. Aiaraldeko udalerria. 4. Nafarroako udalerria, Aezkoan. 5. Gipuzkoako herria, Urola kostan. 6. Putrea. 7. Soldata. 8. Arabako kontzejua, Zuian. 9. Asiakoa.

ALEA

'Veneziako inauteriak: maskarak', haurrentzako lantegia
Araia. Larunbatean,11:30ean, jolaslekuan.

Irakurle Kluba. Mary Shelleyren 'Frankenstein' izango dute solasgai
Gasteiz. Ostegunean, 20:00etan, Ignacio Aldekoa kultur etxean elkartuko dira irakurzaleak.



ALEA

URTARRILA 23

URTARRILA 29

EUSKARAREN AGENDA

MUSIKA

Ahuntzape eta Zartako
Gasteiz. Larunbatean, 21:00etan, gaztetxean.

Mutxikontrapas
Gasteiz. Astelehenean, 19:30ean, Oihanederren.

BERTSOLARITZA

Arabako txapelketa. Lehen finalaurrekoa.
Dulantzi. Igandean, 17:30ean, kultur etxean. Oihane Perea, Ruben Sanchez, Iker Pastor, Unai Bengoetxea, Ander Solozabal eta Irati Anda bertsolariekin.

IKUS ENTZUN

'Mundua bizikletaz. Asia' hitzaldia Koldo Zubizarreta eta Ainhoa Perez de Nanclaresekin
Gasteiz. Asteartean, 20:30ean, Parralen. Geu elkartearen eskutik. Urte osoko bizikleta bidaia kontatuko dute ikus-entzunezkoaren bitartez.

HITZALDIA

'Drogak, kapitalismoa eta mugimendu erradikalak' Aitor Aspururen idazlearekin
Gasteiz. Asteazkenean, 19:00etan, gaztetxean.

'Eskolak euskaldunduko al du Araba?'
Gasteiz. Asteazkenean, 19:30ean, Ignacio Aldekoa kultur etxean.Itziar Idiazabal EHUko Munduko Hizkuntza Ondarearen Unesco katedrako koordinatzailea eta Jokin Larrañaga Aldundiko Euskara Zerbitzuko burua

HAURRAK

'Tomaxen abenturak' haurrentzako antzerkia
Agurain. Igandean, 18:00etan, Harresi aretoan. Txipli Txapla antzerki taldearekin.

'Lurra, airea eta ura' haurrentzako ingurumen lantegia

ALEA

Zalduondo inguruko hariztiak ezagutzeko bisitaldia. Familientzako txangoa

Araia. Igandean, 10:00etan, herriko autobus geltokitik abiatuta. Bost orduko txangoa izango da, Atxipi mendi taldearen eskutik. Zalduondo inguruko basoak ezagutuko dituzte haurrek, gidarien laguntzarekin.

Narbaxa. Larunbatean, 17:00etan, Kromletx taldearen eskutik.

'Panpin panpox' haurrentzako ikuskizuna

Gasteiz. Igandean, 18:00etan, Lakuako gizarte etxean.

BESTELAKOAK

Korrika 19. Aurkezpena

Gasteiz. Gaur, 17:00etan, Landatxo gizarte etxean, Alde Zaharrean. Korrikaren ibilaldia ezagutu eta parte hartzeko aukeren inguruko aurkezpen ekitaldia.

'Dendaketan' oinarrizko euskara ikastaroa

Laudio. Astelehenean, 10:00etatik 11:00etara, Berbots euskaltegian. Merkatari, ostalari eta zerbitzu enpresa langileentzako ikastaro eskaintza berezia da, bezeroekin euskaraz egin ahal izateko. 60 orduko ikastaroa. izango da.

URTARRILA

23

URTARRILA

29

BESTE HITZORDU BATZUK

MUSIKA

'Rock & Kids'. Haurrentzako kontzertua

Amurrio. Larunbatean, 18:00etan, Amurrio antzokian.

Supersubmarina

Gasteiz. Ostirala, 21:30ea, Jimmy Jazz aretoan.

Killing Valery 23, Doggie Partie eta Ekin

Gasteiz. Larunbatean, 22:00etan, Hell Dorado aretoan.

Ensemble Smile

Gasteiz. Asteartean, 20:00etan, Vital Kutxaren aretoan.

London Philarmonic Orchestra

Gasteiz. Asteartean, 20:30ean, Principal antzokian. Clemens Schuldt zuzendariarekin.

ANTZERKIA

'Miren Ponpis' Ortzai taldearekin

Gasteiz. Ostirala, 19:00etan, Ataria gunean. Aranzadi elkarteak antolatuta.

IKUS ENTZUN

'Jeune et jolie" pelikula

Gasteiz. Ostegunean, 18:30ean, Oihaneder jauregian. Berdinzinema zineforuma.

HITZALDIA

Ornitologiari buruzko mintegia Jabi Zabala adituarekin

Gasteiz. Larunbatean, 18:00etan, Ortzai aretoan, Pintore kalean. 5 urtetik gorako haurrentzat.

Luis Camacho argazki kazetaria

Gasteiz. Ostegunean, 19:00etan, Arte eta Lanbide Eskolako liburutegian. Luis Camacho Calle 35 kolektiboko kidea da.

'Nerabezaroa: Seme alaba aldatu didate', Corina Deusto psikologoarekin

Laudio. Astelehenean, 18:00etan, Laudio institutuko liburutegian. Udaleko Zuzen zerbitzuko kidea da Corina Deusto psikologoa.

BESTELAKOAK

Laudioko herri lasterketa

Laudio. Igandean, 11:30ean abiatuko da, Lamuza parketik. Euskarri kirol taldeak antolatuta.

Zure enpresarentzako erakusleiho paregabea
ALEA
Iragarri zaiter
MILAKA IRAKURLE ARABA OSOAN
Publicítate en
ALEA
El mejor escaparate para tu negocio
Informazio gehiago
info@arabakoalea.info